# ESKABIDE PRESENTZIALAK

beta egoitza elektronikoa euskadi.eus

euskadi.eus

# Eskabideak aurkeztea

Eskabidea kanal presentziala erabiliz aurkezteko:

1.- Eskabide-orria online bete eta Administrazioaren sistema informatikoan "gorde", eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera (bestelako formularioak, memoria, aurrekontua…)

2.- Geroago eskabide-orria inprimatu, eskuz sinatu eta deialdiak ezarritako epean aurkeztu behar duzu.

GARRANTZITSUA: BAKAR BAKARRIK ESKABIDE-ORRIA inprimatu eta aurkezten da. Gainerako dokumentazioa Administrazioaren esku egongo da sistema informatikoan.

Eskabidea aurkeztu ahalko da:

- **ZUZENEAN - Aurrez aurreko arreta zerbitzua**
- **EAEko erregistro laguntzaileak**. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan adierazten diren tokietan.
- **Aurkezteko beste leku batzuk:** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

**Eskabide-orria online bete eta Administrazioaren sistema informatikoan "gorde", eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera (bestelako formularioak, memoria, aurrekontua…).**

# 1 Pausoa – Datuak bete




**Jakinarazpen elektronikoak** jasotzeko **ziurtagiri elektroniko** bat izan behar duzu (itsasontzien jokoa, izenpe txartela, NAN elektronikoa edo antzekoa).

*Jakinarazpen elektronikoa aukeratzen baduzu, mesedez bete itzazu abisuak jasotzeko datuak (telefonoa edo posta elektronikoa) eskabidearen inguruko abisuak jaso ahal izateko.*

«Titular» atalean eskatzailearen datuak bete behar dituzu. Ordezkariarenak ere bai, beste baten izenean ari bazara.

Datuok bete behar dituzu:

- Zein lurraldetan dauden eskatzailearen datu fiskalak.
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala (elektronikoa edo postala).
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.

# 1. Pausoa – Datuak bete




«Erantzukizunpeko adierazpenak» ataleko datuak bete behar dituzu.

Aukera batzuk markatuta azalduko zaizkizu eta ezingo dituzu aldatu.

Aurretik dokumenturen bat entregatu baduzu, ez duzu berriro aurkeztu behar, baldin eta dokumentuaren izena, data, eta erakundea adierazten badituzu.

Sakatu «hurrengoa» 2. pausora pasatzeko (dokumentuak erantsi).

# 2. Pausoa – Dokumentuak erantsi







Sakatu «Erantsi fitxategia», dagokion atalean, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eransteko.

Eskatutakoez gain, dokumentu gehiago erantsi nahi izanez gero, sakatu «Dokumentu gehiago».

Administrazioak datuok egiaztatzeko oniritzia ematen baduzu, ez dituzu agiri horiek aurkeztu behar.

Sakatu «Hurrengoa» 3. pausora pasatzeko (Gorde eskabidea).

# 3. Pausoa – Gorde



**Eskabidea**

**ESKABIDE - ANTZERKI-PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK - ANTZERKI KONPAINIAK (Ref:0095201)**

**Prozedura kudeatzen duen administrazio-organoa**

KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

**Datu pertsonalak**

**Titularra**

**Izena:** TITULARRA
**Identifikazio-dokumentua** NAN **Zenbakia:** 11111111H

**Zein lurralde/probintziatan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak**

**Lurralde/ Probintzia** Araba

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala**

Posta bidezkoa

Helbidea:
Espainia
**Probintzia:** Araba/Álava
**Udalerria:** Amurrio **Herria:** Amurrio
**Helbidea:** KALEA **Zk:** 6 **Sol.:** 3 **Letra:** A **Posta kodea:** 01000

**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza**

Euskara

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

Eskatzaileak aitortzen du:

**Bateragarritasun-adierazpenak** Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

- Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala.
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

**Datu pertsonalen babesa(DPBL)**

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: AYUDAS Y SUBVEN. CREACIÓN CULTURAL

- Non araututa: 2006ko uztailaren 27ko AGINDUAn

- Titularra: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurta
horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliat

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

**Erantsitako dokumentuak**

| Tipo de documento | Nombre |
|---|---|
| Produkzioak | produkzioak_formularioa.xlsx |
| Proiektua | proiektuaren_memoria.pdf |

**Baimenak**

✓ Nortasun-datuak (PZN)
✓ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen datuak (Foru-ogasunak)

Atzera | Utzi | Gorde

» Lege informazioa — © 2011 Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

**Eskabidea gorde** — Itxi ✖

**Eskabide hau balioduna izan dadin, inprimatu, sinatu eta Administrazioan aurkeztu behar duzu deialdian ezarritako epearen barruan.**
**Administrazioak hilabetez gordeko ditu zuk emandako datuak, eta soilik erabiliko ditu eskabidea epe barruan aurkezten baduzu paperezko formatuan.**

Gorde | Utzi

Konprobatu datuak zuzen grabatu direla:

- Titularraren datuak.
- Ordezkariaren datuak, ordezkari gisa ari bazara.
- Zein lurraldetan dauden eskatzailearen datu fiskalak.
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala (posta helbidea eta abisuetarako datuak).
- Erantzukizunpeko adierazpenak.
- Erantsitako dokumentuak.

Sakatu «Gorde», zuk emandako datuak Administrazioak gorde ditzan.

# 4. Pausoa – Inprimatu eta Administrazioan entregatu




Eskabidea baliodun izateko inprimatu, sinatu eta **Administrazioan aurkeztu behar duzu, deialdiak ezarritako epearen barruan.**

**Non aurkeztu eskabidea:**

- **ZUZENEAN - Aurrez aurreko arreta zerbitzua**
- **EAEko erregistro laguntzaileak.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan adierazten diren tokietan.
- **Aurkezteko beste leku batzuk:** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

# Eskabide-orria betetzeko argibideak

## ESKATZAILEA

**Zure izenean badiharduzu:**

- Eskatzailea atalean Titularra aukera markatu.
- Datu pertsonalak atalean titularrari dagozkion datuak bete.
- Eskabidea titular gisa sinatu.

**Beste norbaiten izenean badiharduzu:**

- Eskatzailea atalean *Ordezkaria* aukera markatu.
- Datu pertsonalak atalean, ordezkatzen duzun pertsonaren/erakundearen datuak bete *Titularra* jartzen duen lekuan eta zureak *Ordezkaria* jartzen duen lekuan.
- Eskabidea ordezkari gisa sinatu.

**OHARRA: Kontuan izan erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen direla.**

## JAKINARAZPEN- ETA KOMUNIKAZIO-KANALA

Jakinarazpenak eta komunikazioak zein kanaletatik jaso nahi dituzun aukera dezakezu.

- **Posta bidez**: Posta bidezkoa atalean adierazten duzun posta-helbidera bidaltzen dira.
- **Kanal elektronikoz**: Nire Karpeta jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako dagoen ontzira bidaltzen dira. Sartzeko, beharrezkoa da ziurtagiri elektroniko bat edukitzea.

**Oharra**: hamar egun pasatzen badituzu jakinarazpenera sartu gabe, atzera botako da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.